

11. GAIA: OINARRIZKO ESKUBIDE ETA ASKATASUNEN ETENA

Espaniar Konstituzioak berak, aparteko edo anormaltasun konstituzionalaren egoeraren aurrean, salbuespen zuzenbide bat aurreikusten du. Badaude egoera batzuk, non gure eskubideak bat batean geratzen diren (Ez atera etxetik)

1. Alarma, salbuespen eta setio egoera (5. Tituluan: EK 116.2, 116.3 eta 116.4 art.) Hirurak deitzen dira "salbuespen egoera", (116 artikulua osoak salbuespen egoerez hitz egiten du, eta horren barnean, badago salbuespen jakin bat, zeinak "Salbuespen egoera izena duen" Kontuz

2. Eskubide eta askatasunen etetea (EK 55.1 eta 2 art.) Ez da salbuespen egoera bezala, izan ere beste arrazoi batzuegatik da.

Salbuespeneko egoerak

I. Alarma, salbuespen eta setio egoera (EK 116.2, 116.3 eta 116.4 art.)

- 1981eko LO Ley Organica batek arautzen ditu. Lege normal batek baina garrantzi handiagoa du, gaia oso garrantzitsua denean geratzen da hau
 - Holako egoeratan ezin da Kongresua disolbatu (disolbatua badago diputazio iraunkorak asumituko ditu funtzioak). Estatu botereek funtzionatzen jarraitzen dute.
 - Gobernuak erantzule izaten jarraitzen du, Konstituzioak dioenari jarraiki. Gobernuak ezindu alarma salbuespen edo setio egoera bat baliatu bitartean estatu kolpe bat egiteko edo beste zerbait egiteko
 - Marco orokorra: EK 55.1. art (ez konfunditu 53.1ekin, biak titulo berdinean daude (lehenengoan), oinarrizko eskubideen eta egin beharren barruan daude biak) eta EK 116 art (5. tituluan, gobernu eta kongresuaren harremanak).

Oinarrizko eskubideen bermea → 53

Oinarrizko eskubideen etena → 55

- Osatu: 4/1981 L.O.
- Azkenik: Kasuan-Kasuan ematen diren arauak.

- Mugak: Konstituzioak eta legez finkatutako marko globala.

ALARMA EGOERA (EK 116.2 art., L.O 4 art.)

- **Noiz:** Katastrofe naturalak, epidemiak eta krisi sanitarioak, zerbitzu publiko oinarrizkoen paralizazioa, eta oinarrizko produktuen desabastezimendua. Eskubideak ez dira eteten, adibidez: Epidemia bat egon da eta medikuek ordu gehiago sartu beharko dituzte arazo honi aurre egiteko
- **Eragina:**
 - autoritate eta funtzionario publiko guztiak autoritate kompetentearen (Alarma egoera kudeatzen dutena, gobernuak hautatzen du) menpe geratzen dira, eta honek agindutakoa bete behar dute. Ez ohiko lanak ezartzen ahalko zaizkie.
 - Mugatu zirkulazioa, kontsumoak, rekisak egin...
 - Oinarrizko eskubiderik ez da eteten!
- **Prozedura:** Gobernuak dekretatuko du, edo EE.AAko lehendakariak asko jota 15 egunetako epeaz. Azalpenak Kongresuari, eta honen baimenik gabe ezin izango da luzatu. Ad: Medikuek lan egin beharko dute 15 egunez ezbehar larri bat gertatu delako.
- **Adibidea:** Hegaldi kontroladoreak (kontroladoreen grebak), desastre naturalak...

SALBUESPEN EGOERA (EK 116.3 art.)

- **Noiz:** Askatasunak, instituzioen funtzionamendua, zerbitzu publikoak edota ordena publikoa larriki erasoturik direnean eta ohiko bitartekoekin (politikariak, gobernuak, dialogatzeko betebeharra dutenak... ERREGIA ATERATZEN DENEAN) ezin denean egoera konpondu. Iazko Kataluinako egoera. 55.1ean ipinita zeuden eskubideak dira urratu daitezkeenak. Ezin du 30 eguneko iraupena baino gehiago izan.
- **Eragina:** aurrekoak + eskubideen suspentsioa (aurrekoan mugak).
- Gobernuak deklaratu du baina aurretik Kongresuaren baimena behar da. Bai baimenak eta bai deklarazioak bere aplikazio eremua, bere eraginak eta bere iraupena finkatu beharko ditu. Gehienez hilabete, beste hilabete luza daitezkeelarik.

- EK 55.1art: Salbuespen eta setio egoeretan eteten diren eskubideak:
 - Askatasun eta segurtasun pertsonalaren garantiak (EK 17)
 - Bizilekuaren bortxaezintasuna eta komunikazioaren sekretutasuna (18.2 eta 18.3)
 - Egoitza-askatasuna eta kanpo eta barne zirkulatzeko askatasuna (EK 19)
 - Hitz- eta informazio-askatasuna, eta informabideak bahitzeko debekua (EK 20.1 a eta d, eta 5)
 - Bilera eta manifestazio eskubideak (EK 21)
 - Greba eskubidea eta gatazka kolektiboaren eskubidea (EK 28.2 eta 37.2)
- Beste hain bat L.O 4/1981: adibidez ondasun gaietan...
- Alarma egoera + salbuespen egoera.
- Adibideak: Orden publikoa hankaz-gora jartzen denean (Katalunia)

SETIO EGOERA (EK 116.4 art.)

- **Noiz:** insurrekzioa edo bortxa ekintza Espainiaren subiranotasun edota independentziaren aurka, bere lurralde osotasuna edota ordenamendu konstituzionalaren aurka, betiere beste bitartekorik ez badago (4/1981 L.O. 32.1 art.)...ia ia Gerra egoera.
- Kongresuan gehiengo absolutua behar da, guztiak bat etorri behar dira. Kongresuak ezartzen du, gobernuaren proposamenarekin.
- Kongresuak baldintzak, lur eremua eta iraupena ezarriko ditu.
- Efektuak (oinarrizko eskubideak): alarma eta salbuespen-egoeratako neurriak + EK 17.3 (Atxilotuen garantiak)
- Adibideak: Gerra egoeran

116 ARTIKULUA ETA ESKUBIDEAK ETETEA					
116. 2	Alarma egoera	X	15 egunetan luzatu daiteke	KOLEKTIBO ARI ERAGIN	Grebak
116. 3	Salbuespen egoera	55. 1 aplikatuko da (ezin da 117.3 aplikatu)	30 egunetan luzatu daiteke		Orden publikoa hankaz-gora (kataluña)
116. 4	Setio egoera	55. 1 aplikatuko da	Nahi adina luzatu daiteke		Gerra

II. Eskubide eta askatasunen etena (EK 55.1 eta 2 art.)

ESEKITZE KOLEKTIBOA

- 55.1: Salbuespen edo setio egoeretan suspenditzen ahalko dira: Salbuespen kolektiboak dira, gizarte guztirako izango dira neurriak ez pertsona bakar batentzat. Ez zaio atxilotu bakarrari ezarriko neurria, atxilotu guztiei.
 - **17: Norberaren askatasun eta segurtasun eskubidea**
 - 1) Soilik kendu ahal da Konstituzioak eta legeek ezarritako eran.
 - 2) 72 ordutako atxiloketa prebentiboa. Lo de las pelis, esaterako supuesto maltratador que maltrata a su mujer pero no tienen las pruebas entonces lo tienen que soltar después de 72h
 - 3) eskubideen irakurketa, bere aurka ez deklaratzeko eskubidea eta abokaturako eskubidea. (Ez da ematen salbuespen egoeran)
 - 4) *Habeas corpus* (126 LO 6/1984 BOE).
 - Legeak Habeas corpus prozedura arautuko du edozein pertsona ilegalki atxilotua, lehenbailehen auzitegi eskuetan jartzeko.
 - **18.2 eta 3:**
 - Ohorea, intimitatea eta irudi propioa.
 - 18.2: egoitzaren/etxebizitzaren bortxaezintasuna. Berehalako deliturik ez bada, jabearen baimena edo agindu judiziala.

- 18.3: komunikazioen sekretua, epaile agindua dagoenean salbuetsita.
 - **19:** zirkulazio eta bizileku askatasuna. Espainiatik atera eta sartzekoa. Eskubide hau ezin da arrazoi politiko eta ideologikoengatik mugatu. Salbuespen eta setio egoeran soilik eten daiteke
 - **20.1.a eta d, eta 5:** adierazpen askatasuna
 - **1.a:** adierazpen askatasuna.
 - **1.d:** Informazioa jaso eta emateko askatasuna.
 - **5:** soilik epaile agindu bidez adosten ahalko da publikazioak, komunikazioak eta abar bahitzea.
 - **21:** Bilera eskubidea: Biltzeko eta manifestatzeko askatasuna.
 - **28.2:** Greba eskubidea.
 - **37.2:** Gatazka kolektiboak planteatzeko askatasuna.
- Salbuespena: “Estado de excepción” (EK 116.3 eta 55.1) egoera kasuetan 17.3 ez da bete behar.

ESEKITZE INDIBIDUALA(EK 55. 2 art.)

- **55.2:** Lege Organiko batek zehaztuko du, modu indibidualizatuan, epaile eta parlamentu kontrolaz, 17.2 (72 ordutako atxiloketa prebentiboa) eta 18.2 (etxebizitza bortxaezina) eta 3 (komunikazioen sekretua) nola suspenditzen ahalko diren talde terrorista edota armatuko kideei dagozkien ikerketetan.
 - Adibidez: “Legeria terrorista”.
 - Prebentziozko atxiloketaren epe maximoa epailearen eskuetan jarri Gabe (EK 17.2 art)
 - Bizilekuaren bortxaezintasuna (EK 18.2 art)
 - Komunikazioen sekretutasuna (EK 18.3 art)
- * Murrizkoiki interpretatu. Ezin da edonor atxilotu pentsatzen talde terrorista bateko kidea dela, ezin da “a la ligera” hartu, froga asko egon behar dira eta nahiko ziur egon behar da erabakia hartu aurretik. Hori teoria da, beste gauza bat da praktikan zer egiten den.